

LEHEN ALDEA

POETA KAXKARRA — M. Arregi/Imanol

Ni poeta kaxkar bat naiz
baina kolore urdinez
eskribitzen dut gauzez,
desio irixtakorrek
itsuturik doaz ihes
gauaren leize-zulora,
mundua azpikoz gora,
dena jartzen dut aldrebes.

Zure lurralde oparoa
ikusmiratzen dut lehenik
gauaren zirrikutik zelatan
eta haragiz koloretzatzen
zure gorputzaren figura
irudimenaren ixpiluan,
zure sabel borobilaren
maldan behera hamilduz.

Zure lurralde zabal
indarrez goldetuz,
denbo, a joanen erdoiak
akestuak zure desioak
zorrotzen ditut
eta zorion-hazia botatzen
etorkizun lainotuaren artean
oraingo esperantza murriztuaren
hildoa luzatuz.

Nahiaren uholdeek
bortizki astintzen naute,
ilunaren tintontzian
hustutzen ditudan arte.

Ametsak gordintzen ditut
gau grinatsuen labean
eta gero
ixiltasun hezetuaren arnasa
ezinaren eskapatean
gandutzen da doi-doi.

Azkenik,
ixiltasun bustiaren
ohartzun mutua
bilutik gelditzen da
gau ilunaren apalean
eta nik
azpilduak josten dizkiot
loak hartu arte.

Ni poeta kaxkar bat naiz
baina kolore urdinez
eskribitzen dut gauzez.

AMAYUR GAZTELU BALTZA — Lauaxeta/Xeberri-Imanol

Amayur gaztehu baltz ori
—berreun gudari oso sumin—
zaintzen zaituben zaldun onak
Naparra-aldez egin dabe zin.

Iskillu gorritz zenbat gaste
bildur bako menditar lenden.
Eta orreik Yatsu jaun orreik,
Jabier-eko zaldun guren.

Ikurrin bat —kate ta lili—
torre goitijan zabal dago.
Bera salduko daun semerik
mendi onetan ezta jayo.

Amayurko ate-zain orrek
zidar-turrutaz oyu egik.
Baztan ibarran zenbat etsai
arrotz gabe ez dago mendirik!

Esturik Amayur dauko
Miranda-ko konde espaiñarrak
orreik bai buruzko janzkiak
ta urrezko espata sagarrak!

Berekin dator, bai berekin,
Lerin-go eta orren semia.
Txakur txararak jango ai abe
erri-bako zaldun dongia.

Goiko aldetik asten dira,
asten dira sugaba-otsez.
Orma-kontretan zenbat zurgu,
eta gezi zorrotzak atrez!

Baia torrean zabal dabil
ikurrin bat, —kate ta lili—,
nork zapaldu ete dagikez
berreun gudari orok zoli?

Amayurko gaztehu baltza
—iausi yatzuz torre goitijak—.
Baia arrotza etzadi geldu
napar-seme dira gustijak.

Arresi gorri zubi ausi,
—zein gixti diran zaldun oiek—.
Erijo samurño zakije
aberri-miñ baitabiliz eureik.

Mirandako konde gaizto orrek
jo egixuz zidar-turrutak
ikurrin bat —kate ta lili—,
eztau lastanduko axeak.

Berreun gudari oso sumin
gaztehu-pian dagoz illik.
Ordutik ona —zenbat laho—
Naparruan ezta aberririk.

LA PARABOLA — Leon Felipe/Paco Ibañez

Gizon batek dotrina bat zuen
eta dotrina bere barnean zeraman
eta dotrina txalekoaren barrengo poltsan gordetzen zuen.

Dotrina hazi, hazi eta hazi zen,
eta Testamentu Zaharrekoa bezalako kutxa batean gorde zuen.
Eta kutxa hazi, hazi eta hazi zen
eta etxera eraman beharra tokatu zitzaion;
orduan tenplua jaio zen;
eta kutxa jan zuen,
eta gizona jan zuen,
eta txalekoaren barrengo poltsan gordetik zeraman dotrina jan zuen.

Gizon batek dotrina bat zuen
eta dotrina bere barnean zeraman
eta dotrina txalekoaren barrengo poltsan gordetzen zuen.

Gero etorri zen beste gizon bat eta esan zuen:
dotrinadunak jan dezala bere dotrina, tenpluak jan baino lehen,
eta bere gorputza, poltsa, kutxa eta tenplua izan dadila.

BIGARREN ALDEA

MAYO — "Somorrostro"/Imanol

Maiatza da,
Serantes gaineko lainoak
arrain kutsatuak dira.

Maiatza da,
bogalariak prest,
antxo eta marmitakoa.

Maiatza da,
Santurze sufritu eta sufritu,
Barakaldo hilik da.

Loregabeko loreen maiatza,
adardun eta zikiratua.

Erne Sotera!
Santurze hil zorian da.

Zer arraiotarako nahi dugu
bizirik gabeko maiatza?

ZURE ASKATASUNAGATIK — M. Arregi/Imanol

Zure askatasunagatik
ebaki nuen
neure bizitza.

Zure pozagatik
urtu ziren
ene pasio izuen ehurteak.

Zure freskotasunagatik
bihurtu nintzen erreka.

Zuregatik bakarrik
korritzen dut mundua
eta maite ditut besteak.

Zuregatik pixten dut
esperantzaren galdia.

Zuregatik goritzen ditut
maitasunaren nutegian
sentimentuen hauspoz
oroitzapen txostuak.

Zuregatik,
ene bihotzeko erotak,
odol-kolpearen hotsak,
jalkitzen ditu ene pozak.

Zuregatik
oreatzen ditut
egunsentiko argi haizetsutan
barrenaren kolkoan dauzkadan
asmo luzanduak.

Zuregatik zutitu ditut
berriro ere
oroitzapenen ganbaran
etzanda zuden
ilusio gazteak.

Zuregatik,
maitea,
zuregatik bakarrik.

Titikandik
esperantzarik ez izaten
ametsik ez egiten
irakatsi zizuten.

Zure nahiaren kontra
neska edukatu, lehial
eta sierra egin zintuzten,
hizkuntza kaletiarra
sartu zizuten,
etorkizun zorientuaren
itxurazko irrifarre alaiak
zure barrengo laberinto
ilun eta korapilatsua
beltz-bihurriagotzen
zutelarik.

Eta horrela
zure sensibildadearen
pianoa
desafinatuz
zihoan.

Egun batean,
armaiza eta sagar-pepitak
zer ziren erakutsi nizun,
kukuaren kantua bereizten,
kutxak,
hormak
eta lanabes zaharrak
begiratu, ikutu
eta maitatzen.

MAITIAK GALDE EGIN ZAUTAN — Herrikoa

Maitiak galde egin zautan, polita nintzanez.
Polit, polit nintzela baina, larria beltz.

Maitiak galde egin zautan, premu nintzanez.
Premu, premu nintzela baina, etxerik ez.

Maitiak galde egin zautan, boltsa ba nuenez.
Boltsa, boltsa ba nuela baina, diburik ez.

Maitiak galde egin zautan, lana ba nuenez.
Lana, lana ba nuela baina, gogorik ez.

Galxoa, hil behar dugu, guk biok gosez.
Gosez, gosez hil behar baina, elkar maitez!

PICASSO-REN GERNIKA — Joxe Iriarte/Pedro San Martín

Picasso hil zen, baina,
gure tartean gelditzen da,
bere ekintza immortala.

Munduaren aurrean, zuen egina,
herri baten tragedia,
nola,
Bunkerren sabeletatik eroria zen,
heriotzarako materia,
munduak ikus zezala, faxismoaren aurpegia.

Averno-ko eguztiak,
hegaletan zeramatzela gurutze gamatuak,
beren adarretatik zintzilikatzeko,
martiri berriak.

Gernika!

Herri baten sufrimendu gorria;
demokraziaren bihotza kizkalia;
Danteren infernuko irudi harrigarria;
eta zeren-jainkoaren aldarian,
neskatza birjinaren oparia.

Picasso-k bere Gernika-n,
zuen ageria.